



**2011KO URRIAREN 14KO**  
**TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaikako urriaren hamalauan, arratsaldeko ordubi terdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaraturako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Insausti, Inazio Estensoro Eskisabel eta Andoitz Garmendia Zubeldia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturakoen onespenera aurkezten da 2011ko irailaren 16an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2011ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 21 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, EHUN ETA HIRUROGEITA BAT MILA HIRUREHUN ETA LAUROGEITA ZORTZI EURO ETA BERROGEITA HEMEZORTZI ZENTIMO (161.388,58 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

**III.- ELOSEGI-HIRIBARREN BIDEGORRIAREN 5. OBRA-EGIAZTAGIRIA, LIKIDAZIOA.-**

Hiribarren, Elosegi eta Hirigoien kaleen hiritartzeko eta hirigunean bizikletari eta oinezkoentzako bide zatia sartze lanen obra zuzendaritza daramaten Pedro Izaskun arkitektoak eta Javier Santos arkitekto teknikoak lanen likidaziokoa den 5. obra-egiaztagiria luza-tu dute. Obra-egiaztagiri honen zenbatekoa HOGEITA HAMAHIRU MILA BERREHUN ETA BERROGEITA HAMABI EURO ETA HIRUROGEITA HAMAHAZPI ZENTIMO (33.252,77 €) da eta obra burutzen ari den enpresa Sasoi Eraikuntzak, S.L..

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Hiribarren, Elosegi eta Hirigoien kaleen hiritartzeko eta hirigunean bizikletari eta oinezkoentzako bide zatia sartze lanen likidaziokoa den 5. obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

**IV.- EUSKARAKO DIRULAGUNTZAK .-**

Euskara ikasteko eskoletara joateagatik dirulaguntza eskariak ikusi ondoren eta udalak honetarako jarritako baldintzen arabera Euskara, hezkuntza eta Zerbitzuen Sektorera Batzorde Informatzailearen egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, proposamena onartuz BI MILA EHUN ETA LAUROGEITA HAMABI EURO ETA HIRUROGEITA HAMABOST ZENTIMO (2.192,75 €) ematea erabakitzen du.



V.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK .-

2011ko ekitaldian udalerriko kirol taldeei ematekoak diren dirulaguntzen inguruan udalaren kirol batzordeak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako dirulaguntza hauek ematea onartzen du:

Kirol taldeei.-

2011ko ekitaldian udalerriko kirol taldeei ematekoak diren dirulaguntzen inguruan udalaren kirol batzordeak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako dirulaguntza hauek ematea onartzen du:

<u>KIROL TALDEA</u>	<u>DIRULAGUNTZA</u>
Futbol taldea	7.018,00 €
Pelota taldea	1.629,00 €
Igeriketa taldea	408,00 €
Areto futbol gizonekoena	732,00 €
Atletismo taldea	546,00 €
Mendi taldea	594,00 €
Txirrindulari elkarte	573,00 €
<b>GUZTIRA .....</b>	<b>11.500,00 €</b>

- Lazkao Antzar Pilota Kirol Elkarteak San Mioletako eskolaume eta helduen esku pelota txapelketaren antolaketarako egindako dirulaguntza eskaera ikusirik, eta Kirola eta Gazteria Batzordearen proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, berrehun eta berrogeita hamar (250 €) euroko dirulaguntza ematea erabakitzen du.

- Jose Bolinagak, Txindoki Atletismo taldearen izenean "Josetxo Imazen oroimenezko XI. Lasterketa"ren antolaketan izandako gastuei aurre egiteko egindako dirulaguntza eskaera ikusirik, eta Kirola eta Gazteria Batzordearen proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, zazpiehun (700 €) euroko dirulaguntza ematea erabakitzen du.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak puntuan direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

